

## Lesakako Udal Igerilekuetako ostatuaren esleipena.

Lesakako Udal Igerilekuetako ostatua lehiaketa publiko bidez hartzeko aukera zabaldu du udalak. Ostatu hau gaur egun gimnasioa dagoen lekuan egonen da kokatua eta 165m<sup>2</sup> baino gehiago izanen ditu, 45m<sup>2</sup>-ko sukalde ekipatua, 20 m<sup>2</sup>-ko biltegia eta terraza.

Esleipenaren baldintza nagusiak ondorengoak dira:

- 40.000€ + BEZ ordaindu beharko ditu esleipena jasotzen duenak.
- 6 urtetarako esleipena izango da (6 urte hauetan ez da errentarik ordaindu behar izango).
- Hala nahi izanez gero 6 urteak igarota ostatuaren esleipenarekin jarraitu ahal izango da, hilabetean 550€ ordainduta (KPIa kontutan hartuta).
- Ostatua hartu duenak, ostatua uzteko aukera izango du eta jarritako diruaren zati proportzionala itzuliko zaio, %15eko kenkariarekin.

Adibidez, 2 urte igarota ostatua uztea erabakiz gero, Udalak 40.000€ horietatik

azken 4 urteei dagokion zatia itzuliko dio %15a kenduta, zehazki 22.667€ itzuliko

zaizkio (Esleipenean geratzen zitzaizkion urte bakoitzeko 5.666,67€)

- Ostatua eta sukaldea egiteko lanak udalak egingo ditu esleipen honetan jasotako diruarekin.

Edozein zalantza baduzu edo informazio gehiago nahi izanez gero jarri harremanetan Udalarekin, eta gogoratu zure proposamena egiteko uztailaren 15a arteko epea duzula.

Animatu eta egin zure proposamena!

### **Oharra**

Lesako Udalak Ostatuaren lanak egiteko Ostatuaren esleipenean jasotako dirua erabiliko du, hau da, 40.000€+BEZ hauek erabiliko dira lan hauek egiteko, diru sarrera hori ez badao lanak ez dira egingo.